

OSTEGUNA

2019/11/28

7. urtea, 1.151. zenbakia

107.6 fm

www.ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

JOXEMI SAIZAR



LUIS MARI ARANZABE BEOTIBARREN MARKA

Pilotari ohi alkizarrak mila partida baino gehiago jokatu zituen profesionaletan, eta horietatik, 345 Beotibar pilotalekuan, gainditzea zaila den marka ezarri; 38 urte zituela erretiratu zen, eta omenaldia Beotibarren bertan egin zioten // 4-5

Nazioarteko Zeinu Hizkuntzako zine jaialdia, Tolosan

Hamargarrenez antolatu dute, eta abenduaren 6an eta 7an izango da; Rozalen abeslaria ere izango da // 3

Villabonako Udalak, politika feminista garatzeko konpromisoa

30.000 euroko diru sail bat jartzeko eta berdintasun teknikari bat izateko konpromisoa hartu du // 6

Danena futbol klubeko talde nagusia «ilusioz», maila berrian

Erregional preferente mailan estreinakoz ari dira, eta seigarren postuan daude // 7

Zu zeu zara zure
influencer bakarra.



Audi A4 Avant berria.

Autowag Tolosa

Usabal poligonoa, z/g
20400 Tolosa
Tel. 943 67 35 81

Audi A4 Avant Advanced 30 TDI 100 Kw (136 CV) S tronic. CO2 isurketak (g/km): 137-151 (NEDC: 104-113). Kontsumoa (l/100 km): 5,2-5,8.



#HITZOLARIAK

Hotzizara

Neguan ohera sartu orduko bizitzen den hotz/plazer momentua.

Galborada

Iberiak maleta galdu dizula-eta, kezka doinuek goizaldean zure loa etetea.

Otso-haizea

Haizeak ulu egiten duenean.

Patxikusalto

Matxinsaltoa Orexan.



Zer egiten du hitzolari batek?

Jendeak aurretik ezagutzen dituen hitzak, esanahi berria hartu dutenak edota hitz berriak proposatu. Hau da:

- Gure herrian edo sektore jakin batzuetan erabiltzen diren hitzak zabaldu eta azaltzea.
- Lehendik ere bazeuden hitzak baina orain esanahi berria izan dezaketenak plazaratzea.
- Hitzen esanahiarekin edo sonoritatearekin jolastuz, hitz berriak sortzea.

Nola zabaldu daitezke?

Plaza digitala. #hitzolariak traola erabili eta zabaldu.
Herriko plazak. Euskararen Egunari bueltan herriz herri egingo diren ekitaldietan zabaldu.

Lizartzako ostatua lehiaketa bidez esleituiko du udalak

Abenduaren 9a baino lehen aurkeztu beharko dira dokumentuak udal bulegoetan; kontratua bost urtera luzatu daiteke

I.S.A. Amasa-Villabona

Lizartza «herri bizi bat» izateko prozesuan, herriko ostatua «elementu garrantzitsuenetako» bat dela azaldu du Lizartzako Udalak. Orain arte zerbitzua eskaintzen aritu direnek utzi egin dute eta udalak lehiaketara atera du bere ustiaketa urtebeterako, bost urtera luzatzeko aukerarekin. Dokumentuak aurkezteko azken eguna abenduaren 9a izango da.

Tabernaz gain, jangela, aldagela eta biltegia barne hartzen ditu ostatuak. Ustiapen horrek sorrarazten dituen gastuak, besteak beste, garbitasun, argindar, ura, gasa, zaborrak eta estolderi gastuak esleipendunaren kontura izango dira.

Behin lehiaketa bukatuta, esleipendunak 1.000 euroko bermea jarri beharko du; 400 euro kontratua sinatzerakoan ordain-



Taberna zerbitzuaz gain, jantokia ere badu ostatuak. ATARIA

du beharko ditu eta, gainerakotan, lehen 12 hilabeteetan 50 euro ordainduta egin beharko du.

Bestalde, Lizartzako Udalak kanon bat kobratuko die ustiakegatik kudeatzaile berriei: lehen urtean, 50 euro hilabetea, bigarren eta hirugarrenean 100 euro eta laugarren eta bosgarrenean 150 euro.

Kontratuaren iraupena urtebetekoa izango da, eta urtero luzatu ahal izango da gehienez ere bost urtera iritsi arte. Eta betiere, bi alderdiek onespina ematen badute.

OINARRIZKO BALDINTZAK

Kudeatzaile berriak nahitaezkoa izango du euskararen ezagutza eta haren erabilera. Ordutegiari dagokionez, azarotik apirilera 10:00etatik 22:00etara ireki beharko da, eta maiatzetik urrira 10:00etatik 23:00etara. Asteko jai eguna asteartea izango da, eta oporrak abuztuko lehen 3 asteetan egin ahalko dira.

Beharrezko dokumentuak abenduaren 9rako aurkeztu beharko dira Lizartzako udal bulegoetan, astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 14:00etara bitarte.

Babarrun lapikoak sutan jarriko dituzte Ibarran

I.S.A. Ibarra

Larunbatean babarrun festa ospatuko dute Ibarran. Hauspoa elkarteak arduratzen da egun osoko festa antolatzeaz. 09:00etan emango diote hasiera egunari, X. babarrunaren lehiaketarekin. Antolakuntzak jarriko ditu babarrunak eta ura, eta gainerako tresnak norberak eraman beharko ditu.

Eguerdian, 12:00etan, Euskararen Egunaren harira Galtzaundik martxan jarri duen *hitzolariak* egitasmoari egingo diote leku. Hitzak izango dituzte jolas-teko ardatz: hitz zaharrak jaso eta berriak sortuko dituzte. Segidan, txapela eta hitz jaurtitze

lehiaketa egingo dute. Ondoren, babarrunak jatera eseriko dira mahaiaren bueltara. Sakramentuak ere jango dituzte, eta postrearen ondoren, kantuan aritzeaz gain, babarrun txapelketako sari banaketa egingo dute.

Arratsaldean kantu biran ibiliko dira herrian zehar, eta 20:30ean hasitako afari merien-darekin amaituko dute eguna.

ZUZENKETA

Atzo, *Endekapena* izenburua daraman gutuna sinatu gabe argitaratu zen. Mikel Gonzalez-Etxeberri Peñagarikano, TOPA-ko kidea da gutunaren egilea.

Begiraleak nahi ditu Berrobiko Ekintza guraso elkarteak

BERROBI // Guraso elkarteak antolatzen dituen ekintzetarako begiraleen lan poltsa osatu nahi dute. Eskatzen diren baldintzak begirale titulua izatea eta euskar maila altua edo C1 izatea dira. Berrobitarrek lehentasuna izango dute. Interesa dutenek bihar baino lehen curriculumak gurasoelkartea@berrobi.eskolatxikiak.eus helbidera bidali beharko dute.

Bihozkada taldeak kontzertua eskainiko du, bihar, Orexan

OREXA // Orexako ostatuan egin ohi diren kultur ostiralen barruan, Bihozkada taldeak kontzertua eskainiko du, bihar, 22:00etan. Besteak beste, taldearen *Zure aurrean* azken diskoa izango da entzungai.

EH Bilduri ez zaio «zuzena» iruditu udalak Leidorri buruz adierazitakoa

«Autokritika izpirik» ez dutela ikusi salatuz, oposizioaren ustez udalak «gutxietsi» egin du ebazpenak dioena

I. Urkizu Arsuaga

Tolosako Udalak joan den astean argitaratu zuen, Leidor aretoa kudeatzeko lehiaketa publikoaren bueltan sortutako auziari erantzuteko oharra. Bada, hari erantzunez, EH Bilduko oposizioak bere iritzia plazaratu du ohar bidez, adierazpen nagusi baten pean: «Udal gobernuaren balorazioa ez zaigu batere zuzena iruditu, ezta oharra udalaren izenean argitaratzea ere, gu kontuan hartu gabe».

Batetik, Kontratuen Inguruko Errekurtsoen Administrazio Or-

ganoaren ebazpena «gutxiesteko ahalegina» ikusi dute gobernuaren jarreran, «Molaturen errekurtsoko lau puntutatik hiru onartu dituenen».

Era berean, EH Bilduren ustez, pleguetan «gehiegizko eskakizunak» egiteak kanpoan utz ditzake «zerbitzua kalitatez eskain dezaketen enpresak».

Lehiaketa publikoetan errekurtsuak ohikotzat hartzea ere «harrigarria» iruditu zaio oposizioari eta, horregatik guztiagatik, «autokritika» eta «argibideak» exijitu dizkio gobernuari, halarik berriro gerta ez dadin.

German Ormazabal, EGOren zuzendari nagusi berria

Musikari eta kudeatzaile tolosarrak datorren urtarrilean hartuko du kargu berriaren ardura

Erredakzioa

German Ormazabal tolosarra izango da Euskal Herriko Gazte Orkestra Fundazioaren (EGO) zuzendari nagusia, aurrerantzean. Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak atzo iragarri zuen albistea, zuzendari nagusia izendatzeko hautaketa prozesua amaituta, baina kudeatzaile eta musikariak datorren urtarrilean ekingo dio zeregini berriari.

Uda bitarte talde kudeatzaile batek zuen koordinazio horren ardura. Aldaketarekin, proiektuari bultzada berri bat eman nahi diotela azaldu dute.

German Ormazabalek Tolosan hasi zituen musika ikasketak, eta piano eta akordeoi goi mailako ikasketak egin zituen, gero, Donostiako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan. Pianista modura bakarkako erreztaldiak eskaini izan ditu, eta, horrekin batera, musika eta kultur munduko hainbat artista nabarmenekin aritzen da, elkarlanean.

Bestalde, German Ormazabal Zuzenbidean lizentziatua da Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU). Enpresa kudeaketan ere prestakuntza jasotakoa da, eta horretan eman ditu azken hamalau urteak.

Hamargarrenez, entzuten ez dutenen ahotsa entzunaraziz

Abenduaren 6a eta 7a hartuko ditu, Nazioarteko Zeinu Hizkuntzako zine jaialdiak, Tolosan; urteurrena ospatzeko Rozalen abeslari espainiarrak kontzertua eskainiko du

Itzea Urkizu Arsuaga

Gainditzen elkartearen urteroko jarduera izan ohi da, zeinu hizkuntzan egindako zinema jaialdia antolatzea. Aurtengoa, ordea, berezia izango da: hamargarren zinemaldia antolatu dute, eta pozez aurkeztu dute egitaraua, udaletxean.

Zinema jaialdiaren aurretik, gorren sentsibilizazio asteak egin ohi ditu atariko lanak, eta bide horretan 16 urte bete ditu elkarteak. Olatz Peon alkateak haien lana txalotu du: «Indar handia egiten dute pertsonen integrazioan, eta beren errealitatea gizarteratzen».

Bide horretan, zeinu hizkuntzak gizartearen emandako aurreapausoak nabarmendu ditu Julian Rodriguez Gainditzeneko kideak, oraindik ere emateko ditzuten pausoekin gogoratuz: «Azpituak eta interpreteak ohikoagoak dira telebistan, baina beti gai politikoen bueltako saioetan egiten dute eta, askotan, gauez».

Urteurrena da hitzordua egonkortu izanaren iragarle garbiena, eta antolatzaileek azpimarra jarri nahi izan diote Tolosako jaialdiaren erreferentzialtasunari: «Madrilgo eta Bartzelonako jaialdiekin batera, gurea erreferentzia da estatuan, Tolosa herri txikia izanik». Bide horretan, Rodriguezek iazko parte hartzaile



Julian Rodriguez, Olatz Peon eta Labor panpin berria. I. URKIZU ARSUAGA

kopurua gainditzea espero du, eta Topic zentrotik Leidor aretora egindako aldaketan, besaulki gehienak betetzea.

Izan ere, gai eta aldarri sozialak plazaratzeko gunea da zeinu hizkuntzako zinema jaialdia, Olatz Peonen ustez: «Filmek aldarri kutsua izaten dute, baina ez soilik gor komunitatearen beharrei begira; baita gizarteko kezkei begira ere, oro har».

142 FILM LABUR, 10 URTEAN

Azken hamar urteotan, Tolosako jaialdiak 142 film labur eskaini ditu; AEBetakoak gehienak, eta Alemania, Argentina nahiz Kolonbiakoak ere bai, zenbait.

Aurten lanak erakutsiz jarraituko dute, eta abenduaren 6ak lehiaketako proiektzioak hartuko ditu: *La Furia* (Espainia), *Jackey* (India), *La luna roja* (Espainia),

Se valiente (Espainia), *140 palabras* (Espainia), *La otra mirada* (Argentina), *Augur* (Katalunia), *Cero y un dedo* (Espainia), *La sombra* (Espainia), *Cafe negro* (Espainia), *Hope* (Erresuma Batua), *Casa Alavedra* (Katalunia), *Eres tú* (Espainia) eta *Pare* (Katalunia). Bigarren egunean, berriz, azken hamar urteotako film zenbait eskainiko dituzte.

Egitarauari nahiz sarrerei buruzko informazioa www.gainditzenetolosa.com eta tickets.kutxabank.es webguneetan eskura daiteke jada eta, besteak beste, Rozalen abeslari espainiarrak abenduaren 7an eskainiko duen kontzertuari buruzko informazioa ere izango da bertan. Interpretarekin bertaratuko da, eta Gainditzen elkartearen finantzatzeko baliatuko dute sarrerekin eskuratutako diru guztia.

ZER KOLORE DU BERTAKOAK?

JAN TOLOSALDEA BIDEO LABURREN LEHIAKETA

Bozkatu gehien gustatzen zaizun bideoa Ataria.eus-en azaroaren 30a bitarte

Jan Tolosa | TOLOMENDI | tolosaldeko ataria | GIPUZKOA

Beotibarren, etxean bezala

Luis Mari Aranzabe alkizarrak 345 partida jokatu zituen Tolosako frontoian pilotari profesional gisa.



Luis Mari Aranzabe alkizarra gaur egun, Tolosako Beotibar frontoian. JOXEMI SAIZAR

Joxemi Saizar Alkiza

Eskualdeko pilotari ohia dakarkigu orrialde hauetara, Luis Mari Aranzabe alkizarra, mila partidua baino gehiago jokatuakoa 14 urtetan zehar (1973tik 1987ra) profesionaletan eta gaintitza zaila jarri den marka jarri zuena: Beotibar pilotalekuan 345 partida jokatu zituen.

Luis Mari Aranzabe Goenaga 1949ko ekainaren 18an jaio zen Alkizan. Albiztegi baserrian bizi eta, familian aurrekaririk ez izan arren, umetatik hasi zen pilotan jokatzeko herriko frontoian, beste mutiko asko bezala. Lehen txapelketa 13 urterekin jokatu zuen

herrian bertan, jubenil mailan sartuz (orduan ez zegoen besterik gazteentzat), Etxabe baserriko Ramon Iruretagoiena herriki-dearekin batera. Hurrengoan ere jokatu zuten, finala tanto batez galduz.

16 urterekin Tolosara eman zuen saltoa eta beste txapelketa batzuetan parte hartu zuen, Iruretagoienarekin batera Altuna eta Labaien amezketarren kontra adibidez.

Tolosako Urdiña Txiki elkartearen izenean jokatu zuen Gipuzkoako txapelketa eta finala galdu zuten berak eta Gabellanes irurarrak Beristain-Oteiza azkoitiarren aurka. Partida horren bitxikeria da Aranzabe aurrelari gisa aritu zela, normalean atzelaria zenean. «Oreja III. arekin asko jo-

katu nuen bikote gisa, txapelketa asko irabaziz bi urtetan. Tolosan ikasten zuen eta bere herriko Saralegik esanda hasi nintzen harekin jokatzeko», dio Aranzabek.

19 urterekin afizionatuen mailara pasatu zen alkizarra. Argote belauntzarra, Galarza II.a amez-

«Pilotari gazteek zaila daukate, oso kontratu motzak egiten dizkiete eta sasoi onenean etxera bidali»

LUIS MARI ARANZABE
PILOTARI OHIA

ketarra eta Saizar hernialdetarrarekin asko aritu omen zen. Herriz herri ibiltzen ziren jokatzeko. Soldaduska Donostian egin

zuen eta handik bueltan eman zuen profesionaletarako pausoa, 24 urterekin. «Ordun Empresas Unidas izenekoa bakarrik zegoen. Lau enpresagizon ziren: Donostiako Dublang, Eibarko Biddarte, Bergarako Ugarte eta Gasteizko beste bat. Oreja anaiak Bergarara joan ziren proba egitera eta ni ere haiekin batera joan nintzen. Tokia banuela esan zidaten. Dublangek esan zidan profesional bezala jokatzeko has-teko eta gero egingo zidatela kontratua, presarik gabe. 1973ko martxoan debutatu nuen, Ezkurrarekin (Koteto erremontistaren aita, gero bere erretiroan jokatu nuen eta 18-0 irabazi genien) batera 18-7 irabaziz Galarza I.a-Saizarri, eta sei hilabete egin nituen horrela, 44 partida jokatu-z», gogoratzen du alkizarrak.

ENPRESA ALDAKETA

«Baina azaroan Eskulari enpresa sortu zen eta Miguel Soroa tartetan zen. Adiskidetasun handia nuen berarekin. Ea kontraturik nuen galdetu zidan eta oraindik sinatu gabe nuela erantzun nio-nean, beraiekin joateko esan zidan. Nik pozik hartu nuen, aita bezala zen niretzat eta. Enpresa horretako lehendakaria Fraile errioxarra zen eta Lajos, Soroa eta beste batzuk ziren bazkide», azaldu du. Diru gehiago eskaini omen zioten gainera: 3.000 pe-zeta partidako. Garai hartan lantokietan 12.000 pezeta irabazten omen zituzten. «Diru ona zen, orain ere bai, beti ona da», aitortu du. Pixkana soldata igotzen joan zen eta bukaera aldean partidako 14.000 pezeta irabaztera iritsi omen zen.

Errioxako frontoietan asko jokatzeko Aranzabek: Logroño, Santo Domingo... Baina baita ere Nafarroa eta Gipuzkoa-

koetan ere. «Baserrian aritzen nintzen normalean eta partida jartzen zidatenean hara joaten nintzen», dio. Ordun enpresa bakoitzean berrogeita hamarna pilotari omen ziren eta partida asko izaten ziren, askotan bi enpresetako jokalariek nahastuz, ikusmin handiagoa pizten zelako ikusleen artean: Tolosan aste-ro bi (larunbat gauean eta astelehen arratsaldean, igande batzuetan ere bai, dantzaldiaren aurretik), Eibarren beste bi (oste-

«Partida asko jartzen zizkidaten oso segurua nintzelako, eusten jakitea gustatzen zitzaien»

LUIS MARI ARANZABE
PILOTARI OHIA

gun gauean eta jai arratsaldean), Bergaran ere bai (asteazken eta larunbatean)... Partidak batez ere asteburuetan jokatzeko zitu-n, baina tarteka astean zehar ere bai.

Banakako txapelketan parte hartu zuen pare bat aldiz, baina bietan galdu zuen, ez omen zen harentzat. Eta binaka askoz gehiago jokatzeko zuen, baina orduan lehen mailakoek bakarrik jokatzeko zuten txapelketa binaka. Bera bigarren mailako partidetan ibiltzen zen, partida nagusi gutxi batzuk ere jokatu bazituen ere. «Partida asko jartzen zizkidaten oso segurua nintzelako, beti berdintsu aritzea eta eusten jakitea gustatzen zitzaien enpresari, artekariari eta apustulariei», aipatu du.

Bere iritziz, argi dago pilota dirua jokatzeko dagoela eta enpresak, lehen eta orain, dirua irabazteko daudela. Ordun telebistatik ez zegoen eta diru asko



harpidedun izateak badu saria zozketa

1 LA PERLA

Bi lagunentzako Forman jartzeko Talaso Zirkuitua

www.la-perla.net
Kontxako pasealekua z/g
943 458856



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 51

2 DONOSTIAKO AQUARIUMA

Bi lagunentzako bina sarrera

www.aquariumss.com



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 52

3 IKASELKAR HEZKUNTZA ARGITALETXEA

Neguko katalogotik euskarazko jolas eta liburuetan 50 euroko bonoa

943 22876
ikaselkar@ikaselkar.eus
www.ikaselkar.eus



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 53

4 TXURI URDIN irristaketa librea

Bi lagunentzako bina sarrera

Anoeta pasealekua, 24
DONOSTIA
943 46 44 04
www.eltxuri.com



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 54

Parte hartzeko deitu 902-82 02 40 telefono zenbakira edo sartu www.ataria.eus webgunean • Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.



Agurreko omenaldian patida nagusia: Bergara II.a-Maiz II.a eta Bengoetxea IV.a-Errandonea. ATARIA

jokatzen zen. «21na edo 22-20 egiten genuenean intendenteak pozik ematen zigun dirua zuen gutun-azala. Abantaila handiz irabazitakoan berriz, ezta aurpe-gira begiratu ere ia, diru gutxi jokatu zelako frontoian», dio.

Dirua tartean izanda, iruzur arriskua beti egon dela onartu du: «Irabazteagatik propina jaso izan dut, hiru edo lau aldiz, enpresak emandako adina edo gehiago, baina galtzeagatik sekula ez, nahiz eta norbait saiatu erosten. Hala ere ikusten nituen inguruan hori egiten zuten batzuk, artekariekin eta harremanetan zeudenak. Enpresek eta artekariak bazekiten nork egiten zuen, baina isildu egiten ziren. Inor ez bazen kexatzen, aurrera».

MILA PARTIDA BAINO GEHIAGO

Hamalau urtez aritu zen profesional bezala eta partida asko jokatu zituen, mila baino gehiago, irabazitakoak ehuneko handia izanik: hiru urtetan partida gehien jokatu zutenen artean laugarrena izan zen Eskulari enpresan. Adibidez, urte batean

«Gure gimnasioa baserriko lana zen, ezer ez egitea baino hobea zela esaten zigun masajistak»

LUIS MARI ARANZABE
PILOTARIOHIA

Maiz II.a izan zen lehena, 106 partida jokatu; ondoren 102 partida jokatu zituen Salvador Bergara, jarraian Pierola ehunekin eta Aranzabek 97 jokatu zituen, horietako 61 irabaziz. Bi partida jokatu egun bat ere badauka Beotibarren, biak irabaziz. Bere garaiko beste pilotari nabarmenak ziren Lajos, Garzia Ariño, Gorostiza...

Euskal Herriko eta ingurueta-ko frontoi guztietan ibili bazen ere, batez ere udan eta herrieta-ko jaietan, Tolosako Beotibarren

sentitzen zen etxean bezala. Izan ere, jubeniletatik hasi, afizionatuetan jarraitu eta profesional bezala ere ordu asko sartu zituen bertan. «Erretiratu nintzenean, Pedro Mari Estanga kantxeroak sekulako oparia egin zidan: bertan jokatuako partida guztien zerrenda emaitzekin, debutetik erretiroa iritsi arte. 345 guztira. Lazkanok (gero kantxeroa izan zena) esan zidan berak ere asko jokatu zituela, baina hainbeste jokatuako inor ez duela ezagutzen», kontatu du pozik.

Garai hartan ez omen zuten gaur egungo prestakuntzarik: «Gure gimnasioa baserriko lana zen, partidaren sekulako pasada hartu ondoren, hurrengo egunean baserrian beste hainbeste. Masajistak ezer ez egitea baino hobea zela esaten zigun. Frontoian zerbait entrenatzen nuen, norbaitekin edo bakarrik, batzuetan Antonio Zubiaurre (alkate izandakoa) harrika (pilota botaz) aritzen zitzaidan eta Anoretara joan-etorria korrika ere egiten nuen», azaldu du Aranzabek.

Bere garaiko pilotarien artean Ogeta aipatu du bereziki: «Ikusi dudana onena izan zen, bi eskuak zituen, indarra...». Retegi III.a izan omen zuen aurkaririk gogorrena, sake ona zuelako. Askotan jokatu omen zuen berarekin eta bietan galdu egin zuen 21-9 eta 21-13 irabazten joan ondoren. «Hori ez da sekula ahazten», dio. Oreja anaiekin ere asko jokatu zuen, harreman handia izanik. Tolosaldeko pilotari profesional dezentetarik garai hartan: Lazkano, Soroa, Unsain, Galarza anaia, Gabellanes...

ERRETIROA SAN JOAN EGUNEAN

Erretiroa noiz hartu berak erabaki zuen. «38 urte egitera nindotan, Eskulari sozio berriak sartu ziren, Pilotaberriko Retegi eta horiek. Aurretik genituen akordioak aldatuko zirela pentsatu

nuen eta uztea erabaki nuen», dio. 1987ko San Joan egunean izan zen omenaldia, Beotibarren, nola ez. Partida nagusia Bergara II.a-Maiz II.ak 22-19 irabazi zieten Bengoetxea IV.a-Errandoneari.

TELEBISTAZ

Gaur egungo pilota telebistaz jarraitzen du bereziki, oso gutxitan joanez frontoietara.

Altuna amezketarra «artista» bezala definitzen du eta Olaizola ere nabarmendu du, «ikusi dudana ezker aire onena», nahiz eta orain «beheraka» joan. Atzelarien artean Galartza III.a eta Rezusta aipatu ditu. Jokatzeko modua asko aldatu dela dio: «Orain oso suabe sakatzen dute, pasaren beldur. Denek ezker airea egiten dute».

Materiala ere desberdina omen da, baina hori enpresek erabakitzen omen dute, bere interesen arabera, lehen eta orain. «Tapia II.ak pilotarekin frontisean atera zuen hotsa entzuten dut oraindik. Jokalari bikaina zen, ikusteko modukoa», aipatu du. Orain pilota biziagoak izanda ere, seitek atzera gutxitan egiten omen du botea. «Bote altuagoa daukate, zutik jokatzen da orain, lehen gehiago makurtu behar izaten genuen», zehaztu du.

Errebotera iristen ziren pilotariak aipatu ditu: Salbidea, Zezea-

ga, Nalda II.a, Armendariz... Orain pilota guztia txapelketari begira dagoela uste du eta kompetentzia handiagoa dagoela beste kirol asko daudelako.

Publikoa ere asko aldatu omen da, orain buila egitera omen doa askotan: «Lehen, seguruak ginenoi, bi kale eginez gero, segituan hasten ziren txistuka. Orain ez da txisturik egiten».

ZAILTASUNAK

Pilotari gazteek ere zaila omen daukate gaur egun: «Debutatuz gero, ez nuen bidaltzeko beldurrik izan, lasai nengoen, ondo ibili nintzen. Baina orain kontratu oso motzak egiten dituzte eta aurrera egiten ez duten asko

24-25 urterekin etxera bidaltzen dituzte, sasoi onenean, guk debutatzen genuen garaian, ilusio guztia izorratuz. Negargarria da».

Bi semeak, Urko eta Igor, ibili ziren pilotan eta bigarrena Gipuzkoako finalera iritsi zen jubenil mailan. «Lanean hasi zen eta hobe zuela zerbait ikastea esan nion, gaur egun bigarren mailakoek ez dutelako dirurik egiten eta ez duelako merezi», dio. Orain oso pilotari gutxi daudela dio, eta enpresetan langile asko: teknikariak, medikuak, masajistak... «Gure garaian Arriaran III.a eta Alfonso Etxeberria intendenteek dena egiten zuten».



Luis Mari Aranzabe pilotari garaian. ATARIA



zozketak

Atarikideentzat **bi sarrera** ditugu



**DELTECO GIPUZKOA
BASKET - AFANION CB
ALMANSA
partida ikusteko**

Abenduak 1, 18:00etan,
Jose Antonio Gasca pabiloian

Zozketetan parte hartzeko Osteguna 13:00ak arte: 943 65 56 95 edo www.ataria.eus



Atarikideentzat **bi sarrera** ditugu

**Gipuzkoako Bertsolari
txapelketa:
Tolosako saiorako
bi sarrera**

Abenduak 1, 17:00etan,
Usabal kiroldegian

Politika feminista garatzeko konpromisoa hartu du udalak

Amasa-Villabonako Udalak datorren urtean 30.000 euroko diru sail bat jartzeko eta berdintasun teknikari bat izateko urratsak emateko konpromisoa hartu du

Jon Miranda Amasa-Villabona

Aho batez onartu zituzten astear-tean Amasa-Villabonako osoko bilkuran aztertutako puntu gehienak. Galde erreguen txandan, ordea, EAJk kontuak eskatu zizkion EH Bilduren udal gobernuari. Aurreko ekainetik ari dira jeltzaleak udal batzorde informatzaileetan alderdi bakoitzak udalbatzan duen ordezkariaren arabera parte hartze proportzionala eskatzen. Patxi Agirre EAJko zinegotziaren esanetan, proportzionaltasuna aitortu ezean, talde jeltzalearen eskubide politikoak «urratu» egingo dira, eta are gehiago, «bigarren mailakoa izango da EAJren ordezkariak». Berehalako erantzun bat jaso ezean auzitara jotzearekin mehatxatu zuen Agirrek.

Beatriz Unzué alkateak ordezkari jeltzaleei jakinarazi zien, aste honetan bertan jasoko dutela idatziz udal batzordeetako parte hartzeari buruzko proposamena. Gogoratu zuen batzordeak irekiak izaten direla, eta normalean, boto eskubidea duten bost hautesik parte hartzen dutela. Eudeleko teknikariekin kontsulta egin ondoren, alkateak aurreratu zuen udal batzordeak EH Bilduko hiru zinegotzirekin eta EAJ eta PSE-EEk banarekin osatzeko erabakia hartuko duela udal gobernuak. «Batzordeak irekiak dira, hala ere, eta boto eskubide gabe, baina zuen alderdiko nahi bezainbeste kidek parte hartu

ahal izango dute», gogorarazi zuen Unzuék.

Hain zuzen, osoko bilkura, gobernu batzar eta batzordeetan parte hartzeagatik zinegotziek jasotzen dituzten dieten ingurukoa izan zen EAJk galde erreguen txandan mahai gainean jarri zuen hurrengo gaia. EAJk eta PSE-EEk gai hau osoko bilkurara eramateko eskatu eta alkateak gai zerrendan sartu ez izana kritikatu eta gero, dieta horien kudeaketa, «modu ordenatu eta sistematizatuan» egitea eskatu zuen Agirrek. Alkatearen iritzian, ordea, «modu efiziente» kudeatzen dira dietak, kontu-hartzailetzarekin berarekin kontrastatu ahal izan duenez.

Xabat Laborde alkateordeak proposamenak «beti euren zilborretik» egitea egotzi zion oposizioari eta udal batzordeetan alderdien proportzionaltasunaren eztabaidan honakoa adierazi zien jeltzaleei: «Batzordeak irekiak dira eta lasai etorri zaitezke, desiratzen gaude, baina dieta bat gehiago lortzeko ez kontatu gurekin. Sekulako lana hartu duzue gai honekin eta zain gaude noiz hartuko duzuen hainbesteko lana, zuen zilborretik harago, herritarrei mesede egingo dien proposamen bat aurkezteko».

ERAKUNDE ADIERAZPENAK

Igaro berri den Emakumeen Kontrako Indarkeria Ezabatze egunaren harira, adierazpen instituzionala egin du Amasa-Villa-



EDUKIONTZIAK EGOKITZEN

Hasi dira organikoaren eta errefusaren edukiontzia errazago zabaltzeko pedalak jartzen Amasa-Villabonan. Udalak ohartarazi duenez, «lehenik txartela pasatu behar da eta ondoren pedalari eman, txartela pasa aurretik pedala zapalduz gero, ez baita edukiontzia irekiko». ATARIA

bonako Udalak, alderdi guztiek aho batez onartu dutena. Besteak beste, udalak politika feminista aktiboa garatzeko konpromiso irmoa agertzen du eta horretarako baliabide ekonomiko eta giza baliabide nahikoak bideratuko dituela dio: «Berdintasuna sustatzeko 30.000 euroko diru partida ezarriko du 2020. urterako eta aldi berean Amasa-Villabonan lan egingo duen berdintasun teknikari bat izateko urratsak eman-gotitu».

Asteartean izango den Euskararen Egunaren inguruan, kon-

promiso zehatzak hartuz beste erakunde adierazpen bat aurkeztu zuen EH Bilduk, EAJ eta PSE-EEko zinegotzien abstentzioarekin onartu zena. Administrazio publikoaren kontratuak hizkuntza irizpideetan eta Uema «babestu, indartu eta zabaltzeko» proposamenen zalantza agertu zituen talde jeltzaleak eta horrela argudiatu zuen euren abstentzioa. Bide batez, EAJk, alderdi guztiek Eudelen adostutako adierazpena aurkeztu zuen osoko bilkuran, aho batez onartu zutena.

GUTUNA

Argazki bilketa

Dakizuen bezala, Fleming Herri Eskolako 50. urteurrena dela eta hainbat ospakizun eta ekintza burutzeko lanean ari gara.

50 urte hauetan ezinbestekoa izan da eskola komunitate osoaren lana eta hala izaten jarraitzen du gaur egun ere. Horregatik, Fleming Herri Eskolako kide diren eta izan diren ordezkariak bat islatzea izan da argazki honen helburua, denon artean osatu baitugu gaur egun gure eskola dena eta horretan lanean ilusioz jarraituko dugu.

Beste behin ere, behar zaituztegu eta laguntza eskatzeko helburuarekin idazten dugu mezu hau. Ikasle, guraso, langile eta irakasle ohiei edota gaur egungoei eskolarekin lotura zuzena izan dezaketen azken hamarkadetakoa, argazkiak, bitxikeriak, oharak, oroitzenak edota materiala eskolara ekartzea nahi genuke.

Hori dela eta, mezu honen bidez, etxean gordeta dituzuen garai bateko argazkiak eskolara bidaltzeko deialdia luzatu nahi genuke. Biderik egokiena, argazkiak eskaneatu eta eskolara bidaltzea izango da, bakoitzaren izen-abizenak eta jaiotze urtea zehaztuz, honako helbide honetara: 50fleming@gmail.com.

Dena den, nahiago baduzue, Arroako eta Arratzaingo eskoletako sarreraren azaroaren 29tik aurrera egongo diren maletetan ere utz dezakezue materiala. Aipatutakoez gainera, bideo irudirik, eskola materialik edo garai bateko libururik gordeta izango bazenuke, horren berri ematea gustatuko litzaguke, horretarako, aurrez aipatutako helbide elektronikoa erabiliz.

Eskertuko genuke lagunaren artean informazioa zabaltzea.

Fleming Herri Eskola Amasa-Villabona

ataria jarrita
Goierriko eta
Urola Kostako
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €
HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €
ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Irati Lakunza berriro garaile



Igarondo Urpekoak taldeko igerilariak. ATARIA

Hegats igeriketako klubaren arteko ligaren bigarren jardunaldian lortu ditu garaipenak

Erredakzioa

Hegats igeriketako klubaren arteko ligaren bigarren jardunaldia egin berri dute Donibane taldeko igerilekuan, Iruñean. Ipar ligako jardunaldi irekia izan zen, markagailu elektronikoarekin. 120 igerilariet 50 metro ur gainekotik hasi eta ur gaineko 1.500 metro arte zituzten aukeratzeko. Igarondo Urpekoak taldetik 22 igerilariet hartu zuten parte, eta

gehienek 400 eta 50 ur gaineko probetan igeri egin zuten. Emakumezkoetan bi probak Irati Lakunzak irabazi zituen eta gaztetxoek «400 metroko proba zailan ederki igeri egin zuten», esan dute klubetik. Gaztetxoetan Leire Santa Cruz eta John Barrel izan ziren taldeko azkarrenak, 100 metro eskafandran ondo ibili ziren Goenaga ahizpak eta Maite Gibelalde.

Hurrengo erronka helduentzat abenduan izango da, Valladoliden, Espainiako selekzioarekin joateko sailkapenak jokatzeko baitira. Taldeko Irati Lakunzak eta Aras Karakusek sailkatzeko aukera dute.

Erasoan inoiz baino hobe



Aulkitik

Nerea Ixmucane
TEEP Samaniego Orixe

Azaroaren 22a iritsi zen, hilabete generaman partida bat jokatu gabe eta taldekide batzuk jada hankak gogortuak genituen eta ligaz zeharo ahaztuak.

Oraingoan, Idiazabalen joka-

tzea egokitu zitzaigun. Beraz, beti bezala, Tolosan elkartu ginen denok batera joateko. Abiatzeko prest geundenean, istripu txiki bat eduki genuen taldekide batekin, ondorioz, bat gutxiago izan ginen jokatu genuenak. Hasi, animoak oso goran ez eduki arren, indarrak atera genituen eta gogotsu atera ginen jokora.

Defentsak sutsuki egin zuen lan, baloia atezainarengana iristea eragotziz eta inoiz baino hobe ibili ginen erasoan baloia mugituz.

Aurkari indartsuak eduki arren, gure aldeko golak ez zuten denbora asko behar izan agertzeko. Bigarren zatian Idiazabalgoen aldetik izan ziren golak, berdinketara eramanez. Beraz, partida bina bukatu zen.

Positiboki baloratzen dugu joan pasa genuen denbora, beti baita plazer bat Idiazabalgo jokalariekin jolastea.



Erregional preferente mailako Danena taldeko kideak. ATARIA

Maila berrian, «ilusioz»

Danena klubaren talde nagusia lehen denboraldia egiten ari da erregional preferente mailan

Imanol Garcia Landa Zizurkil

Erregional preferente mailan hasi dira Danena futbol klubeko talde nagusikoak denboraldi honetan. Igoera lortzea berezia izan zen, Alex Chenlo entrenatzaileak azaldu duenez: «Presiorik gabe hasi genuen aurreko denboraldia, pixkana lana egiten. Maiatza iritsi zen eta igoera fasean sartu eta igotzea lortu genuen. Klubaren azken igoera, eta bakarra, orain 15 urte izan zen. Hau bigarrena da, beraz klubarentzat oso pozgarria izan da eta ilusio handiarekin hasi dugu denboraldia».

Egun, 11 jardunaldien ondoren, seigarren postuan dago Danena, 15 punturekin. «Partidak ikusi dituen norbaitek esan dezake, igo berriak dira eta seigarren joatea ondo dagoela. Egia esanda, puntu asko joan zaizkigu azken minutuetan, eta pena hori dugu. Agian eskarmentu

falta da, talde gaztea dugulako», zehaztu du Chenlok. «Baina guk helburua argi daukagu: maila mantentzea da eta esperientzia hartzea datorren denboraldiari begira. Eta momentuz bide onetik goaz». Sailkapenean segurtasun tarteak badutela, baina puntuak lortzen jarraitu nahi dute, eta horretarako asteburuan Tolosaren aurka izango duten derbia baliatu nahi dute. «Helburuak epe motzera zehazten ditugu. Epe luzera zehazten baditugu agian arazoak sortu daitezkeelako. Hori da gure filosofia», esan du entrenatzaileak.

Erregional preferente mailan aurkitu duten ezberdintasuna batez ere intentsitate aldetik dela dio Chenlok: «Partida guztiek eskatzen dizute 95 minututan intentsitatea ehuneko ehuneko izan behar dela. Intentsitatea edo kontzentrazioa jaitsi dugunean bi minututan, golak sartu dizkigute partida bukaeran eta puntuak joaten zaizkizu, eta gero horiek faltan bota ditzakezu denboraldiaren bukaeran».

Taldeko partaideei dagokionez, zenbait baja izan badira ere, aurreko urteko oinarria mantentzen dutela dio entrenatzaileak: «Denek elkar ezagutzen dute,

TALDEKIDEAK

Ander Gilletto. Atezaina.
Mikel Hilario. Atezaina.
Patrick Gomez. Atzelaria.
Axel Otaegi. Atzelaria.
Mikel Guerrero. Atzelaria.
Mikel Etxarri. Atzelaria.
Julen Sanchez. Atzelaria.
Beñat Etxezarreta. Atzelaria.
Joseba Otegi. Atzelaria.
Urtzi Iturriotz. Erdilaria.
Iker Oronoz. Erdilaria.
Iker Mateos. Erdilaria.
Joseba Astiasaran. Erdilaria.
Hipolito Aguado. Erdilaria.
Ander Usandizaga. Erdilaria.
Julen Jauregi. Erdilaria.
Andoni Robles. Erdilaria.
Imanol Bengoetxea. Erdilaria.
Jon Astigarraga. Erdilaria.
Eñaut Galarraga. Erdilaria.
Joseba Almorza. Aurrelaria.
Erik Sanchez. Aurrelaria.
Jokin Martin. Aurrelaria.
Alex Chenlo. Entrenatzailea.
Mikel Argote. Bigarren entrenatzailea.

ondo konpontzen dira eta hori oso garrantzitsua da talde giroarentzat». Jokalari berriei dagokionez. Bi jubenil igo dira lehen taldera, eta beste batzuk inguruko herrietatik iritsi dira.

IRAGARKI LABURRAK

Lana

Ettxeko lanak. Pertsona bat behar da etxeko lanak egiteko. Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbakira: 688 888 207 (12:00-14:00 artean).

Garbiketa lanak. Tolosan esperientzia duen pertsona bat behar dugu elkarrekin garbitzeko. Lanaldi erdia, goiz eta arratsalde, asteazkenetik astelehenera, baita jai egunetan ere. Ezinbesteko baldintza da esperientzia izatea. Interesatuak deitu 943 67 06 26 telefono zenbakira.





OSTEGUNA, 2019KO AZAROAK 28
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



OSTEGUNA 28

AGENDA

Deialdiak

Tolosaldea. Desing Thinking, ideien sorrera sustatzeko tresna hitzaldia, 09:00etan, Lehiberrin.
Larraul. Kultur astea: 16:30. Bizitzaren laborategian ipuin kontaketa Ana Galarraga zientzialariaren es-kutik. Ondoren, merienda Katilutxulon. 19:00. *Hika egingo al diñagu?* mahai ingurua Eli Pagola eta Oihana Iguaran bertsolariekin kultur etxean. Ondoren. Hika-poteoa ostatuan.
Ikaztegieta. Ikazneren istorio kontaketa, liburutegian, 16:30ean.
Berastegi. Bingoko sari berezia Gaztainondo elkartearen, 18:00etan.
Ibarra. Eguzkilore tabernaren inaurgurazioa, Txaston Dixieband taldearen kontzertuarekin, 19:00etan.
Ibarra. *Euskaraz bizi ahal gara!* hitzaldia, Txontxon, 19:00etan.
Tolosa. Hasta siempre, hijo mio filma, 19:15 eta 21:45ean, Leidorren.
Lizartza. Zirriborro antzerkia, 19:00etan, udaletxean.
Tolosa. Alkoholiko Anonimoen bilera, 19:30ean, Corpus Christin.
Amasa-Villabona. 36. Mendi Astea: *Pumori*, Mendiaren Alabardokumental, Gurean 20:00etan.
Tolosa. Titirijai: *Alicia y las ciudades invisibles*, Topic-en, 22:00etan.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Iker Ibarluzearen eguraldi iragarpena, agenda, solasaldia, Letren errepublika, Quark zientzia atala, eta amaitzeko eskualdeko musikari batek eginiko proposamen musika.
11:00. Eutsi goiari. Kirolak.

12:00. Entzuteko jaioak. Musika.
16:00. Zebrabidea. Magazina.
18:00. Goizeko saioen onena.
21:00. Mestibull. DJ Bullekin.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosalde
16:30. Urrutiajunbe
17:30. Gaurkoan Tolosalde
21:30. Gaurkoan Tolosalde
22:00. Santa Zezilia kontzertua
23:00. Denbora da poligrafo bakarra
23:30. Gaurkoan Tolosalde

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Cecilia Bronte Posada. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.
TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Amarotz auzoa, 9. 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Hodeiak nagusituko dira egun osoan eta euria utziko digute. Goizean eta arratsalde erdira arte ezer gutxi botako du.

Bihar. Eguraldi lasaia izango dugu. Egunsentian euri tantakaren bat izango den arren, goizean bertan atertu eta ostarteak zabaltzen hasiko dira.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzukizunik.



BERTAKO MERKATARITZA EZAGUTZERA

Merkataritza jarduera ezagutzeko asmoz, Reunion Uharteko bederatzi ikasle Tolosara etorri ziren joan den astean. Aurrez, Erasmus + ekimena tarteko, Tolosaldea LH-koak joan ziren Afrikako uhartera. Hala, lehen astean teoria landu zuten ikastetxean bertan, eta bidaia batzuekin eta bertako gastronomia probatzeko aukera ere izan dute. Aste honetan hainbat dendatan ari dira merkataritza jarduera ezagutzen. Cadi Claire ikasle afrikarra, esaterako, Tolosako Goena dendan ari da. «Gustura» ari dela dio, «esperientzia berriak ikasten». ASIERIMAZ

ZUZENEAN

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako hirugarren finalaurrekoa Tolosako Usabal kiroldegian

Jarraitu zuzenean Ataria irradian.
Imanol artola 'Felix'-ek gidatuta

ABENDUAK 1 • IGANDEA
16:45ean hasita

ataria 107.6 fm
irratia www.ataria.eus



Tolosako Babarruna
GOZA ITZAZU
www.tolosakobabarruna.eus
Tel.: 943 65 02 53

